EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
Komunikaziorako uzendaritza

**PRESIDENCIA**
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena

Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa

Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriak 13**

**Vitoria-Gasteiz, 13 de octubre de 2020**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

## KONTSEILUAK LEGEBILTZARRARI GOBERNU-PROGRAMA BIDALI DIO

Lehendakariak, gaur, Gobernu Kontseiluan, 2020-2024 Gobernu Programa aurkeztu du; hura Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio. Honako hiru printzipio hauek dira dokumentu horren oinarri: osasuna bermatzea, ekonomia suspertzea eta inor atzean ez uztea.

Programak legegintzaldi honetarako herrialdeko hamar helburuak jaso ditu:

- Langabezia % 10etik behera murriztea
- Industrian eta zerbitzu aurreratuetan BPGd-aren % 40 gainditzea
- I+Gn bateratasuna lortzea Europako batez bestekoarekin
- Euskadi Europan desberdintasun sozial gutxien duen 5 herrialdeetako bat izatea (Gini indizea)
- Euskadi Europan genero-berdintasuneko indize nagusiena duen 6 herrialdeetako bat izatea
- Eskola uztearen tasa % 7tik beherakoa izatea, eta euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea
- 85 urte arte luzatzea bizi-itxaropena
- % 30 murriztea berotegi-efektuko gasen emisioa
- Energia berriztagarrien kuota energiaren amaierako kontsumoaren % 20 izatea
- % 10 areagotzea jaiotza-tasak

Testua 25 jarduketa-arlotan, 150 konpromiso programatikotan eta 650 ekimen zehatz ingurutan egituratzen da.

Oparotasuna, pertsonak, planeta eta autogobernua dira dokumentuak oinarri dituen 4 ardatzak.

**Oparotasunaz** ari denean, enpleguaz eta suspertze ekonomikoaz ari da. Pertsonez ari denean, osasunaz, hezkuntzaz, zerbitzu publikoez, berdintasunaz, gizarte- eta kultura-politikez, bizikidetzaz eta giza eskubideez funtsezko erronka gisa. Planetaz ari denean, bidezko trantsizio energetikoan eta klimatikoan aurrera egiteaz. Eta autogobernuaz ari denean, autogobernu gehiagoz eta hobeaz.

**Gobernantza Publiko eta Autogobernua**

## GOBERNU KONTSEILUAK USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO EH BILDUREN PROPOSAMENAREN KONTRAKO IRIZPIDEA ADIERAZI DU

Eusko Jaurlaritzaren aburuz Euskadik baditu indarrean tresna juridiko eta instituzionalak euskal administrazio publikoetan gardentasuna sustatzeko eta ustelkeriari aurre egiteko. Horrenbestez, EH Bildu legebiltzar-taldeak jardunbide egokietarako eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko egindako lege-proposamena kontuan hartzearen kontrako irizpidea azaldu du.

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Gobernantza Publikoa eta Autogobernu sailburu Olatz Garamendik proposatuta, erabaki du bideriz ez ematea jardunbide egokietarako eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege proposamenari. Euskal administrazioek badituzte jadanik fiskalizazio eta ekonomiaren eta aurrekontuen kontrolerako barne tresna nahikoa. Era honetan, halaber, bikoizkeriak saihestu ahal dira.

Gainera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ere begirale eta kontrol lanetan dihardu; baita Estatuko Kontuen Epaitegia ere, kontabilitate erantzukizuna epaitzearekin lotutako eginkizunetarako. Horretaz gainera, hor dago Arartekoa, autonomia, foru eta herri administrazioen funtzionamendua ikuskatzen duen erakundea, Estatuko Herri Defendatzailea, berari dagozkion eskumenetan, eta baita Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

Azkenik, gardentasun eta fiskalizazio betebehar honekin lotuta, garrantzizkoak dira kargu publikodunen Kode Etikoa eta Jokabidezkoa, Etika Publikoko Batzordea eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea. Esan gabe doa, hor daudela Euskadin zigor-arloko jurisdikzioa osatzen duten organo judizialak eta Fiskaltza bera.

Lege proposamenak ez du aintzat hartzen ustelkeriaren kontrolarekin zerikusia duen erakunde-sare trinkoa, ezta proposatzen den erakunde berri horrek sor ditzakeen erredundantziak ere. Horrek organoak bikoiztea ekarriko luke eta eraginkortasuna kaltetu. Gainera, EH Bilduk proposatzen duen ereduak gehiago erreparatzen dio antolaketa-egitura berriak egitearen garrantziari, eta ez hainbeste gardentasunaren eta gobernu onaren printzipio eta balioari.

**Gobernantza Publiko eta Autogobernua**

## GOBERNU KONTSEILUAK KONTRAKO IRITZIA AGERTU DU EH BILDUK LEGEBILTZARREAN AURKEZTUTAKO “EUSKARA JAKITEKO ESKUBIDEA BERMATZEKO LEGE PROPOSAMENA” AINTZAT HARTZEARI DAGOKIONEAN

Eusko Legebiltzarraren araudiaren 148.2 artikuluan jasota datorren bezala, Eusko Jaurlaritzak bere iritzia eman dezake Legebiltzarrean aurkezten den Lege Proposamen bat aintzat hartzearen inguruan.

Gaurkoan, Gobernu Kontseiluak aztergai izan du EH Bilduk iragan irailaren 15ean aurkeztutako Lege Proposamena “Euskara jakiteko eskubidea bermatzekoa”.

Lege Proposamena aztertuta, Gobernuak erabaki du, aintzat hartzearen kontrako iritzia agertzea, hainbat arrazoirengatik:

Batetik, Eusko Jaurlaritzak, bereziki Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, baina baita beste hainbat sailen bitartez ere, hainbat neurri eta jarduera garrantzitsu bultzatu eta jarri ditu abian azken lau urteetan, euskararen ikaskuntza eta ezagutza sustatzeko, euskararen erabilera areagotzeko, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta, orohar, Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza normalizazio osoa lortze bidean aurrera egiteko. Izan ere, helburu hauek aurreko Legealdiko Gobernu Programan helburu estrategikotzat izan ditugu, eta 2017-2020 Euskararen Agenda Estrategikoaren parte izan dira. Dagokien aurrekontu esleipena ere izan dute, eta dute.

Neurri horiek, jada finkatuta edo bideratuta daude Gobernuaren jardunean. Honakoak dira horietako batzuk:

1. 2020ko irailaren 9ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

2. Ikasleei zuzendutako dirulaguntzak hobetzea, matrikulak ordaintzeko. Eta zehazki, B2ra arteko matrikularen doakotasuna ezarritako baldintza betez.

3. Legealdi honetarako aurreikusitako neurrien artean dugu, C1 maila egiaztatzea lortzen duten 16 eta 30 urte bitarteko ikasleei matrikularen doakotasuna bermatzea.

4. Euskal Enplegu Publikoaren Lege berria, eta honen baitan enplegu publikoan euskararen erabilera normalizatzeko oinarriak jartzea.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren erreforma – barne-izapidean dagoena–.

6. Hezkuntza Lege berria, baita ere, XII. legegintzaldian onartzea aurreikusten dena, eta euskara ardatz duen sistema eleanitz baterantzko eredua helburu duena.

Bigarren arrazoi nagusia izan da, Lege Proposamen honen oso antzeko bat aurkeztu zuela 2018ko urrian Legebiltzar talde berberak. Orduan, Eusko Jaurlaritzak egitasmo hau tramitera onartzearen aldeko iritzi baldintzatua agertu zuen, eta bere bidea egin du Legebiltzarrean. Bide horretan eztabaidatutako gai batzuk Gobernuaren jardunean txertatu dira, baina, ez da testu baten gaineko akordiorik lortu.

Ondorioz, Lege Proposamenak jasotzen dituen hainbat gai eztabaidatuta edota Jaurlaritzaren politika eta programetan jada txertatuta eta bideratuta daudela eta, Gobernuak erabaki du, Lege Proposamen hau aintzat hartzearen aurrean, kontrako iritzia agertzea.

**Hezkuntza**

## 26,6 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIBATUENTZAT

- **Egun Euskadin hezkuntza maila hori eskaintzen duten 277 eskola pribatu daude, 12.000 haur ingururekin**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020-2021 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 26.595.745 euro bideratzen ditu diru-laguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentrook mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea eta, beharrezkoa izanez gero, handitzea ere bada deialdi honen xedea. Eskola hauek, Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, euskal familiei familia bizitza eta lanbidea bateratzeko funtsezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzen diete.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 277 zentro daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenak. Joan den 2019-2020 ikasturtean, 12.438 haur zeuden eskola horietan matrikulaturik.

Dirulaguntza deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

## Hezkuntza

### 798.875 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ENPRESETAKO EGONALDIETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020-2021 ikasturtean iraila-martxoa bitarte Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua egingo duten Lanbide Heziketako ikasleentzako enpresako egonaldirako beken deialdia egiten duen Agindua.

Era honetan, eta deialdi honen bidez, laguntza hau jasotzen duten ikasleek aukera izango dute, beste hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza modulua egin duten enpresan bertan egonaldia luzatu ahal izateko, aipaturiko modulua amaitu ondoren eta martxoan ebaluatu bitartean.

Laguntza hauek norgehiagokako lehian deitzen dira, eta orotara 798.875 euroko diru-kopurua dute. Hezkuntza Sailak 394 laguntza emango ditu deialdi honen bidez, eta onuradun bakoitzak 1.800 euroko kopurua jaso ahal izango du gehienez (600 euro hileko). Laguntzak bere barne hartzen du, onuradunak hileko jasoko dituen 600 euroez gain, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea ere.

Deialdi honen onuradun izateko, ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskadiko Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bateko bigarren mailan matrikulatua izatea 2020-2021 ikasturtean, eta irailetik-abendurako epean Lantokiko Prestakuntza modulua egitea.
- Enpresak interesa izatea ikasleak egonaldia bertan egiten jarrai dezan.
- 30 urte baino gehiago ez izatea 2020ko abenduaren 31n.

Lanbide Heziketako ziklo guztiek dute, bigarren mailako ikasketa planean, Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua. Enpresako ingurune errealean burutzen den prestakuntza praktikoa da hau, eta ikasten ari den heziketa zikloak dituen gainerako modulu guztiak gainditu ondoren egin ohi du ikasleak.

Deialdi honen helburua da, egonaldia beste hiru hilabete ere luzatzeko aukera ematen duenez, Lanbide Heziketako ikasleen gaitasun profesionalak hobetzea, bai teknikoak eta baita zeharkakoak ere. Era horretan, ikasleei enpleagagarritasuna eta lanerako sarbidea ere hobetu egiten zaizkie, titulua eskuratzen dutenerako.

**Hezkuntza**

## 200.000 EURO BIDERATU DITU HEZKUNTZA SAILAK EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA ESKURATZEKO LAGUNTZATARA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021 urtean ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak ematen dituen Agindua onartu du. Laguntza hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten eragileei daude zuzenduak, UPV/EHU salbu. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdia honen xedea da 2021ean zehar ekipamendu zientifikoa erosi ahal izateko diru-laguntzak ematea, beti ere hauen kostua 18.000 eta 240.000 euro artekoa bada (BEZ gabe). Era honetan, deialdiak dituen bi helburu nagusiei erantzuten zaie: batetik, Euskadiko zientzia eta teknologia-ahalbideak areagotzea, eta bestetik, ikertzaile-taldeek arrakastaz eta gaitasunez parte hartu ahal izatea Europako ikerketa-espazioaren eraikuntzan.

Ekipamendu zientifikotzat hartzen da, deialdi honetarako, I+G+b jarduerak garatu ahal izateko beharrezko den bitarteko fisikoen (ekipoen) multzoa. Ekipamendu hauek, entitateetako ikerketa-taldeen oraingo zein etorkizuneko ikerketa-proiektuak egiteko egokiak eta beharrezkoak izan behar dute. Ekipamendua erabiliko duten proiektuak 2022an garatzen hasiak egon beharko dira, ekipamendua erakunde onuradunean funtzionatzen hasten denetik.

Aipaturiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide dira, eta beraz, deialdiaren onuradun izan daiteke: Oinarrizko eta Bikaintasun Ikerketarako Zentroak (BERC); Unibertsitateetako zentro, departamentu, atal, institutu edo bestelako ikerketa unitateak, (UPV/EHUkoak izan ezik); Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC); eta Teknologia Zentroak.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

**EUSKO JAURLARITZAK ANDONI ALDEKOA DE LA TORRE, EUSKALDUNA JAUREGIKO EGUNGO ZUZENDARI NAGUSIA PROPOSATU DU EiTBKO ZUZENDARITZA NAGUSIRAKO**

Bingen Zupiria Kultura sailburu eta Jaurlaritzako bozeramailearen ekimenez, gaurko Gobernu Kontseiluak ontzat eman du Eusko Legebiltzarrari proposatzea, Andoni Aldekoa de la Torre izenda dezala EiTBko zuzendari nagusi izateko, 2013ko hasieraz geroztik Euskal Irrati-Telebistako Erakunde Publikoko zuzendari nagusiaren kargua betetzen ari den Maite Iturbe Mendialdua ordezkatuz.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proposamena onartzeko eta Andoni Aldekoa de la Torre hautagaiak EiTBko zuzendari nagusiaren kargua hartzeko aukera izan dezan, jarraitu beharreko prozedura hainbat baldintza eta eperen mende dago. "Euskal Irrati Telebista" erakunde Publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 16. artikuluak, urriaren 11ko 4/1996 Legearen erreforman, honako hau ezartzen du: *“Zuzendari nagusia Jaurlaritzak proposatu eta Legebiltzarrak hautatuko du, eta proposamena onartzeko, Legebiltzarkideen erdien gehi bat gehiagoren aldeko botoak beharko dira, gutxienez. Behi, hautaketa eginik, lehendakariaren dekretu bidez izendatuko da zuzendari nagusia”.*

Gaurtik aurrera jarraitu beharreko izapideak honako hauek dira:

Jaurlaritzaren Idazkaritzako Zuzendaritzak berehala bidaliko dio proposamena Legebiltzarrari, hautagaiaren *curriculum vitae*-arekin batera.

Legebiltzarrak proposamena jasotzen duenean, legebiltzar-taldeei bidaliko die dokumentazioa, eta Legebiltzarreko Mahaiari helaraziko zaio proposamena, honek osoko bilkurara noiz bidali behar den ezar dezan.

Proposamena Bateraezintasunen Batzordeari ere bidaltzen zaio, aztertu eta dagokion txostena egin dezan.

Proposamena Osoko Bilkuran onartu ondoren, Legebiltzarrak Gobernuari jakinaraziko dio onartua izan dela, eta lehendakariak Izendapen-Dekretua argitaratuko du EHAAn.

* **Andoni Aldekoa de la Torreren *curriculum vitae*-a jasotzen duen PDF dokumentua erantsi da**.

**Presidencia**

## EL CONSEJO REMITE AL PARLAMENTO EL PROGRAMA DE GOBIERNO

El Lehendakari ha presentado hoy en el Consejo de Gobierno el Programa de Gobierno 2020-2024 que será remitido hoy mismo al Parlamento Vasco. Garantizar la salud, reactivar la economía y el empleo y no dejar a nadie atrás son los tres principios inspiradores de este documento.

El programa recoge los diez objetivos de País para esta legislatura:

- Reducir el paro por debajo del 10%;
- Superar el 40% del PIB en la industria y servicios avanzados;
- Lograr la convergencia en I+D con la media europea;
- Colocar a Euskadi entre los 5 países europeos con menor desigualdad social (Índice Gini);
- Posicionar a Euskadi entre los 6 países europeos con mayor índice de igualdad de género;
- Consolidar la tasa de abandono escolar por debajo del 7%, y avanzar en el conocimiento y uso del Euskera;
- Aumentar la esperanza de vida hasta los 85 años;
- Reducir en un 30% la emisión de gases de efecto invernadero;
- Lograr que la cuota de energías renovables represente el 20% del consumo final de energía; y
- Aumentar en un 10% las tasas de natalidad.

El texto está estructurado en 25 áreas de actuación, 150 compromisos programáticos y alrededor de 650 iniciativas concretas.

La prosperidad, las personas, el planeta y el autogobierno son los 4 ejes sobre los que se articula el documento.

**La prosperidad**, entendida como empleo y reactivación económica. Las personas con la salud, la educación, los servicios públicos, la igualdad, las políticas sociales y culturales, la convivencia y los derechos humanos como retos fundamentales. El Planeta con el objetico de avanzar hacia una Transición energética y climática justa. Y el Autogobierno, definido como más y mejor Autogobierno.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL CONSEJO DE GOBIERNO MANIFIESTA SU CRITERIO DESFAVORABLE A LA PROPOSICIÓN DE LEY DE EH BILDU DE CREACIÓN DE UNA OFICINA CONTRA LA CORRUPCIÓN

El Gobierno Vasco considera que Euskadi ya cuenta con un dispositivo jurídico e institucional para impulsar la transparencia y combatir la corrupción en las administraciones públicas vascas y por tanto manifiesta su criterio desfavorable a tomar en consideración la proposición de ley formulada sobre esta cuestion por el grupo parlamentario de EH Bildu.

En la reunión celebrada hoy, el Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, Olatz Garamendi, no ve necesario dar curso a la propuesta de creación de una oficina para las buenas prácticas y contra la corrupción. El Ejecutivo vasco considera que el conjunto de las administraciones vascas cuentan ya con instrumentos internos de fiscalización y control económico y presupuestario, de modo que se evita una duplicidad.

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP) también realiza esta tarea de monitorización, lo mismo que el Tribunal de Cuentas del Estado para las funciones relacionadas con el enjuciamiento de la responsabilidad contable. También el Ararteko, la institución que supervisa el funcionamiento de las Administraciones autonómicas, forales y locales, se suma a esta labor, así como el Defensor del Pueblo del Estado, en el ámbito de sus competencias, y la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Por último, coadyuvan en esta labor de transparencia y fiscalización el Código Etico y de Conducta de los cargos públicos del sector público vasco, así como la Comisión de Ética Pública y la Comisión vasca de acceso a la información pública, sin olvidar los órganos judiciales vascos y el Ministerio fiscal de Euskadi.

La iniciativa no tiene en cuenta el complejo entramado institucional vinculado al control de la corrupción y las posibles redundancias que puede ocasionar la oficina anticorrupción planteada con los órganos ya habilitados. En definitiva, se trata también de evitar el riesgo de duplicar órganos y perjudicar la efectividad. Además, el modelo planteado por EH Bildu está más enfocado en crear unas nuevas estructuras organizativas, y de coste incrementalista, en vez de en la regulación de una acción pública más comprometida con los principios de la transparencia y el buen gobierno.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

## EL GOBIERNO MANIFIESTA SU CRITERIO DESFAVORABLE A LA TOMA EN CONSIDERACIÓN DE LA PROPOSICIÓN DE LEY PARA GARANTIZAR EL DERECHO A SABER EUSKERA, PRESENTADA POR EH BILDU

De acuerdo con el artículo 148.2 del Reglamento del Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco puede manifestar su posición en relación a la toma en consideración de una Proposición de Ley.

En esta ocasión, el Consejo de Gobierno ha analizado la Proposición de Ley para garantizar el derecho a saber euskera, registrada por el grupo Eh Bildu el pasado 15 de septiembre.

Analizada la Proposición de Ley, el Gobierno ha acordado manifestar su criterio desfavorable a la toma en consideración, por varios motivos:

En primer lugar, el Gobierno Vasco, ha implementado e impulsado, a través, tanto del Departamento de Cultura y Política Lingüística, como de otros Departamentos, varias medidas y actuaciones importantes orientadas al fomento del aprendizaje y conocimiento del euskera, al aumento del uso del euskera, a garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, y en general, a avanzar hacia la plena normalización lingüística en la CAE. Estos objetivos han formado parte de los objetivos estratégicos del Programa de Gobierno en la pasada legislatura y han estado recogidos en la Agenda Estratégica del Euskera 2017-2020. Han contado y cuentan también, con la correspondiente asignación presupuestaria.

Estas medidas, están ya consolidadas o encauzadas en la acción del Gobierno. Éstas son algunas de ellas:

1. Orden de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula la evaluación y certificación de los niveles de competencia lingüística en euskera, y se fijan los criterios para las convocatorias de ayudas al alumnado de los cursos de euskera para adultos.

2. Mejora de las ayudas a las matrículas del alumnado. En concreto, la gratuidad de las mismas hasta el nivel B2 cumpliendo determinadas condiciones.

3. Gratuidad en la matriculación al alumnado entre 16 y 30 años que acredite el nivel C1; medida prevista para esta legislatura.

4. Nueva Ley del Empleo Público Vasco y a través de ella, las nuevas bases para la normalización del euskera en el empleo público.

5. Reforma –ya en trámite interno- del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6. La nueva Ley de Educación cuya aprobación está prevista en la XII Legislatura, y a través de ella avanzar en el objetivo de un modelo plurilingüe con el euskera como eje.

En segundo lugar, en octubre de 2018, el mismo grupo parlamentario registró una Proposición de Ley muy similar a la actual. En aquella ocasión, el Gobierno manifestó su criterio favorable -con consideraciones- y la iniciativa ha tenido su recorrido en el Parlamento Vasco. Algunas de las cuestiones debatidas durante su trámite han sido incorporadas en la acción del Gobierno. Sin embargo, no ha existido acuerdo para un texto definitivo en el seno del Parlamento Vasco.

Por todo ello, por considerar que varias de las cuestiones planteadas por la Proposición de Ley han sido ya debatidas y/o incorporadas y encauzadas en las políticas y programas del Gobierno Vasco, el Consejo de Gobierno ha acordado manifestar su criterio desfavorable a la toma en consideración de la Proposición de Ley.

## Educación

**26,6 MILLONES DE EUROS PARA LAS ESCUELAS DE PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL DE TITULARIDAD PRIVADA**

- **Actualmente hay en Euskadi 277 centros privados que ofrecen esta etapa educativa, con cerca de 12.000 niños y niñas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas económicas a las escuelas de primer ciclo de Educación Infantil de titularidad privada, durante el curso 2020-2021.

El Departamento de Educación destina 26.595.745 euros a esta convocatoria de subvenciones, con la finalidad de contribuir al mantenimiento de estos centros educativos, disminuir y homogeneizar las cuotas de las familias usuarias de sus servicios y mejorar la calidad de la atención educativa y asistencial de las escuelas infantiles de titularidad privada para niños y niñas de cero a tres años. De igual manera, es también objetivo de estas subvenciones consolidar la oferta ya existente y ampliarla en los casos que se considere necesario.

Las escuelas objeto de esta convocatoria de subvenciones complementan el servicio que ofrecen las escuelas infantiles del *Consorcio Haurreskolak*, y junto con éstas, constituyen un servicio educativo fundamental que facilita la conciliación de la vida familiar y laboral de las familias vascas.

Actualmente existen en Euskadi un total de 277 centros educativos de titularidad privada que ofertan el primer ciclo de Educación Infantil y que, estando debidamente autorizadas para impartir esta etapa educativa, pueden ser beneficiarias de estas ayudas económicas. Durante el pasado curso 2019-2020, había 12.438 niños y niñas matriculados en ellas.

El plazo para la presentación de solicitudes para esta convocatoria será de 1 mes a partir del siguiente al día de la publicación de la Orden en el BOPV.

## Educación

### 798.875 EUROS PARA LA ESTANCIA EN EMPRESA DEL ALUMNADO DE FP

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan becas para de estancia en la empresa para alumnado de Formación Profesional que curse el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) durante el periodo septiembre-marzo, en el curso académico 2020-2021, y sea evaluado en marzo de 2021.

De esta manera, mediante esta convocatoria, al alumnado beneficiario se le da la posibilidad de prolongar durante tres meses más su estancia en la empresa en la que ha realizado el módulo FCT, una vez finalizado éste y hasta que sea evaluado.

Estas ayudas, que se convocan en régimen de concurrencia competitiva, cuentan con un importe global de 798.875 euros. El número de ayudas que concederá el Departamento de Educación asciende a 394 con un importe total máximo por beneficiario de 1.800 euros (600 euros mensuales). La concesión de la ayuda incluye, además de los 600 euros mensuales que percibirá la persona beneficiaria, el alta en el Régimen de la Seguridad Social.
El alumnado beneficiario de esta convocatoria deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Estar matriculado en segundo curso de un ciclo de Formación Profesional de Euskadi en el curso académico 2020-2021 y tener que realizar el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) en el periodo de septiembre-diciembre.
- Contar con el interés de la empresa para la realización de la estancia en la misma.
- No tener más de 30 años a 31 de diciembre de 2020.

Todas las enseñanzas de FP incluyen, en su segundo año, el módulo denominado FCT. Se trata de una fase de formación práctica que se desarrolla en un entorno real de empresa y que, como regla general, el alumnado lo realiza una vez superados todos los módulos profesionales del ciclo formativo que cursa.

Esta convocatoria, que alarga la estancia en la empresa hasta un máximo de tres meses más, sigue el propósito de que el alumnado de FP mejore sus competencias profesionales, tanto técnicas como transversales, para así también mejorar su empleabilidad y el acceso al mercado laboral, una vez obtenga la titulación.

## Educación

### EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 200.000 EUROS EN AYUDAS PARA LA ADQUISICIÓN DE EQUIPAMIENTO CIENTÍFICO

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para la adquisición de equipamiento científico durante el año 2021, destinadas a los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), excepto la UPV/EHU. Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 200.000 euros.

Esta convocatoria concede, a los citados agentes, ayudas económicas para la compra de equipamiento durante 2021, cuyo coste esté comprendido entre 18.000 y 240.000 euros (sin IVA). De esta manera, se da respuesta a los dos objetivos que persigue la convocatoria: por una parte, incrementar el potencial científico y tecnológico de la Comunidad Autónoma del País Vasco; y por otra, facilitar que los grupos de investigación vascos participen con éxito y competencia en la construcción del Espacio Europeo de Investigación.

Se entiende por equipamiento científico, a efectos de esta convocatoria, el conjunto de medios físicos (equipos) que se requieren para el desarrollo de actividades de I+D+i. Estos equipamientos deben ser adecuados y necesarios para el desarrollo de los proyectos de investigación en curso y futuros de los grupos de investigación. Los proyectos en los que se utilizará el equipamiento deberán estar en desarrollo durante 2022, una vez que el equipamiento esté operativo en la entidad beneficiaria.

Entre los miembros integrantes de la RVCTI se encuentran, y podrán ser por tanto beneficiarios de la convocatoria: Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC); Estructuras de Investigación de las universidades, excepto de la UPV/EHU; Centros de Investigación Cooperativa (CIC); y Centros Tecnológicos.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO PORPONE A ANDONI ALDEKOA DE LA TORRE, ACTUAL DIRECTOR GENERAL DEL PALACIO EUSKALDUNA, PARA LA DIRECCIÓN GENERAL DE EITB

A iniciativa del Consejero de Cultura y Portavoz del Gobierno Bingen Zupiria, el Consejo de Gobierno de hoy ha decidido proponer al Parlamento Vasco el nombramiento de Andoni Aldekoa para que, en un futuro próximo, asuma el cargo de Director General de EiTB en sustitución de Maite Iturbe Mendialdua, actual Directora General del Ente Público de Radiotelevisión Vasca desde comienzos de 2013.

El procedimiento a seguir en el Parlamento para la aprobación de la propuesta presentada por el Gobierno y que el candidato, Andoni Aldekoa de la Torre, pueda acupar el cargo de Director general de EiTB, está sujeta a una serie de requisitos y plazos.

El artículo 16 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de creación del Ente Público "Radio Televisión Vasca", en la reforma de la Ley 4/1996, de 11 de octubre, establece que "*El Director General será propuesto por el Gobierno y elegido por el Parlamento y su aprobación requerirá, al menos, los votos favorables de la mitad más uno de los miembros del Parlamento. Una vez realizada la elección, el Director General será nombrado por Decreto del Lehendakari* ".

Los trámites que se deberan de seguir a partir de hoy son los qu ese detallan a continuación:

La Dirección de la Secretaría del Gobierno remitira inmediatamente la propuesta al Parlamento, acompañada del *currículum vitae* del candidato. Cuando el Parlamento reciba la propuesta remitirá la documentación a los grupos parlamentarios y se le dará traslado a la Mesa del Parlamento para ésta establezca la fecha de envío a Pleno.

La propuesta se remite también a la Comisión de Incompatibilidades para que la estudie y emita el informe correspondiente.

Una vez aprobada la propuesta en Pleno, el Parlamento informará al Gobienro de su aprobación y el lehendakari publicará el Decreto de Nombramiento en el BOPV.

***Se adjunta documento PDF con el *curriculum vitae* de Andoni Aldekoa de la Torre.**